

Azoka jendetsua

Pello Zabala
izango da
gaur,
hizlari ▶ 5



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ Asteartea ▶ 2007-10-02 ▶ V. urtea ▶ 1.250. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Eskualdekoek hiru kategoriatan irabazi dute, Eskuz Binakakoan

LEITZA ▶ Eskudero eta
Arandia, Saralegi eta
Tolosa eta Jaunarena eta
Lana izan ziren garaile

«**GUSTURA**» ▶ Herenegun
jokatu zituzten finalak
«oso politak» izan zirela
diote Aurrera eskolakoek ▶ 7



Leitzako Amazabal pilotalekuan jokatu zituzten herenegun, Eskuz Binakako Txapelketako finalak. A. OTEZABAL



J. AZKUE

Josu Kastañares garaile Zaldi Lasterketan

ZIZURKIL ▶ Orendaingo Iñaki Garmendiak
bigarren egin zuen, eta Zizurkilgo
Asier Mujikak, berriz, hirugarren ▶ 4

TOLOSALDEA ▶

Abaltzisketa, Bedaio eta Amezketan telefono zerbitzurik gabe daude

Ostiral gauean berriro egin zuten
telefono hariaren lapurreta ▶ 5

HEZKUNTZA ▶

Klandestinitate garaiko ikastoletako langileak omendurik

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren ikasturte hasierako ekitaldia egin zuten larunbatean Leidor aretoan



Larunbateko ekitaldiko une bat, Leidor aretoan. GORKA RUBIO / ARGAZKI PRESS

JAKES GOIKOETXEA (Berria)

Taup, taup, taup, taup. Bihotz taupadak entzun, ikusi eta sentitu ziren larunbatean Tolosako Leidor antzokian, oholztan eta oholztatik kanpo. Bihotz taupada gorri-gorriak ikusi ziren Kukai konpainiako dantzarien gorputz lirinetan. Bihotz taupadak irudikatu zituzten txalapartaren ttakunarekin eta dantzarien oinek oholztaren kontra egindako soinuarekin. Bihotz taupadak sentitu ziren klandestinitate garaiko ikastoletako andereñoak eta

langileak oholztara igo ziren unean.

Bihotza, emozioak, izan ziren protagonista Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren ikasturte hasierako ekitaldian, klandestinitatean lan egin zuten andereñoak eta ikastoletako gainerako langileei egindako omenaldian. «Gu falta ginen omenaldia egiteko», esan zuen Hasier Etxeberria kazetari, idazle eta ekitaldiaren aurkezleetako batek.

«Nire lehen andereñoak Lourdes izena zuen», gogoratu zuen Koldo Tellitu Euskal He-

rriko Ikastolen Konfederazioko lehendakariak. «Andereño Nekane, Kontxita... eskerrik asko denen izenean», esan zien Tontxu Campos Jaurilaritzako Hezkuntza sailburuak.

Herritarren eta erakundeen babesa sentitu zuten larunbateko ekitaldian Frankismo garaian ikastoletan lanean aritutakoek. Leidor antzokian ziren besteak beste, Eusko Jaurilaritzako Tontxu Campos, Jokin Azkue eta Erramun Osa, Anjeles Iztueta Hezkuntza sailburu ohia, Jokin Bildarratz Tolosako alkatea, Batasuneko Joseba

Permach eta Marije Fullaondo, PSE-Eeko Vicente Reyes, EAKO Onintza Lasa eta LABeko Jon Urrusolo. Baita Octavio Granda Espainiako Gizarte Segurantzako estatu idazkaria ere. Espainiako Gizarte Segurantzak klandestinitatean irakasle aritutakoei urte haiek kotizatutaz emango dizkie, azaroaren 14rako beharrezko agiriak aurkeztuz gero. Agiriak lortzeko eta aurkezteko lanean ari dira asteotan.

Itzalpeko urte haietan lan egin zuten irakasleak eta langileak igo ziren oholztara, dantzariak egindako arku baten azpitik, bildutakoan txalo artean. Oholztan gainean bertsoetan gogoratu zuten egindako lan nekeza eta eskertu zuten omenaldia.

Erronka nagusiak

Atzokoa ikastolen ikasturte hasierako ekitaldia ere bazen, eta Tellituk ikastolen erronka nagusiak aipatu zituen: ikastolen antolaketa berria; Euskal Curriculum borobiltzea eta lehenbailehen indarrean jartzea; eta Euskal Eskolaren Legea. Tellituren esanetan, bide horretan ez da urratsik egin, eta ikastolak «deseroso» sentitzen dira gaur egun. «Osatu gabeko trantsizioa» aipatu zuen: «Publikotasunak definizio berria behar du, eguneratu egin behar da. Katalunian publikotasuna ez da mugatzen titularitate-ra».

Tontxu Campos Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza sailburuak esan zuen Ikastolen Konfederazioa hezkuntza sistemaren zutabeetako bat dela: «Hezkuntza sistema bat dugu, ez bi sare. Horrek izan behar du helburua». Hezkuntza sailburuak egindako lana eskertu zuten ikastoletako langileei.

GIZARTEA ▶

Lapurreta saiakeragatik hiru adingabe atxilotuta

ERREDAKZIOA

Herenegun goizaldean pertsona batek hainbat gazte Larramendi kalean auzokoa «gogaitzen» ari zirela salatu zuen, eta Ertzaintzaren patrulla bat bertaratu ostean, adingabeko bat ikusi zuten «jarrera behatzaileekin». Ertzaintzen presentzia ohartzean, ihes egiten saiatu zen eta harrapatu egin zuten.

Beste bi adingabeko ere ikusi zituzten eraikineko bi etxetako terrazatan. Terrazatik jaitsi zitezten agindu zieten eta bietako batek eskuan bihurkin bat zuela egiaztatzen zuten. 15 eta 17 urte bitarteko ustezko hiru lapurrak atxilotu eta polizia-etxera eramanez zituzten beharrezko polizia-eginbideak egin eta, ondoren, aske uzteko beren arduradunen tutoretzapean.

TELEFONOAK ▶

Larrialdia. ((112)) Osasuna.

▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212

▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

▶ Asteasu. Medikua: 692423

▶ Baliarrain. Medikua: 889003

▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361

▶ Bidegoian. Medikua: 681134

▶ Ibarraldea. Osasun etxea: 672411

▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329

▶ Irura. Osasun zentroa: 690720

▶ Leizta. Osasun z.: 948 510800

▶ Orendain. Medikua: 655595

▶ Oresa. Medikua: 682228

▶ Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amarozen dispen.: 672637

▶ Asunzion Klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leizta): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

GIZARTEA ▶

Langileek iskanbila gehiago salatu dituzte adingabeko etorkinen zentroan

Hezitzaileetako bat Donostia Ospitalera eraman beharra izan zuten

ERREDAKZIOA

Pasa den astean Tolosako Sevendenea etorkin adingabeen zentroko langileek bertako egoera «jasanezina» dela salatu eta bertan gertaturiko azken istiluen berri eman ostean, asteburu honetan ere liskarrak errepikatu egin direla salatu dute langileek.

Langileek azaldutakoaren arabera, iragan asteburuko lehenengo liskarra larunbat gauean gertatu zen. 3 hezitzaile, 3 zaintzaile eta 17 adingabeko etorkin zeuden une horretan zentroan. Langileek azaldutakoaren arabera, «adingabekoei hezitzaileen eta zaintzaileen aurka egin zuten bat batean, eta hezitzaile-

tako bat Donostia Ospitalera eraman beharra izan zuten». Larunbatekoaz gain, herenegun arratsaldean ere beste liskar bat gertatu zela kontatu dute zentroko langileek. Kasu honetan, «bi adingabekoren artean izan zen liskarra, eta ondoren, N-1 errepidetik ihes egin zuten batek». Orduetik Ertzaintza adingabeko horren

bila ari da. Langileek zentroko «segurtasun falta» salatzen dute, eta bertako instalakuntzak «zikinak eta egoera txarrean» daudela diote. Halaber, gazte hauek behar duten heziketa eskaintzeko ez dituztela behar adina baliabide salatu eta horri irtenbidea jartzeko exijitu dute.

Berrikuntza lanak

Tolosako zentroko berritze lanak hilabete honetan bertan hasiko dituzte, eta urte amaiera baino lehen amaitzea espero dute. Obrek irauten duten bitartean beste zentro batzuetan egongo dira adingabekak.

FUTBOLA ▶

Hiru partida galdu, hiru irabazi eta bi berdindu dituzte Tolosa CFko taldeek

3. mailako mutilek galdu egin zuten; neskek berriz, irabazi

E. EZEIZA

Asteburu honetan etxean jokatu badu ere, ezin izan du garaipena lortu Tolosak. Izan ere, 0-1 galdu zuen igandean, Gernikaren aurka. Korner baten ondoren jokaldiak erabaki zuen partidaren emaitza.

Tolosakoak berdinketa lortu nahian ibili ziren norgehiagokan zehar baina, lan handia eta gero, ez zuten lortu markagailua igotzea. Defentsan ederki aritu ziren etxekoak, baina hau ez zen nabaritu azken emaitzan.

Hurrengo partida kanpoan jokatuko dute hirugarren mailakoek. Basconia izango dute aurkari urdinek.



Hirugarren mailako Tolosa CFkoak jokoan. M. SOROA

Gainontzekoen emaitzak

Tolosa CFko zortzi taldeek izan dituzte partidak asteburu honetan, batzuek larunbatean, eta besteek igandean. Hirugarren mailan jokatzen duten neskek Ostadar taldea izan zuten aurkari igandean. Hauek etxean jokatu zuten eta 5-4ko

emaitzarekin norgehiagoka irabazi zuten.

Mutiletan, jubenilen ohorezko mailak Lagunak taldea izan zuten aurkari eta 3-2, galdu zuten. Lurraldeko lehenengo mailan, Usurbilen kontra 2-2 berdindu zuten. Jubenilen ohorezko mailan ere berdinketarekin amaitu zen Tolosakoen partida. Hauek Martutene izan zuten aurkari eta launa egin

zuten. Kadeteen ohorezko mailan, egurra eman zioten Tolosa CFkoek Touring-i. 5-0 amaitu zen bi taldeen artekoa. Kadeteen lehen mailakoek eskualdeko beste bat izan zuten aurkari, Villabona hain zuten. 2-1 galdu zuten urdinek. Azkenik, infantilen ohorezko mailan, 3-0 irabazi zuten Tolosak Herrerako Sportingten kontrako norgehiagoka.

FUTBOLA ▶

Laskorainek 3-8ko emaitzarekin irabazi du denboraldiko lehen partida

GSI Bilbaoren kontra jokatu zuen kanpoan, pasa den larunbatean

ERREDAKZIOA

6 astetako prestaketaren ondoren, 2007-2008 denboraldiari ekin zioten joan den larunbatean Laskorainekoek. Lehendabiziko partida Bilboko San Ignazio kiroldegian jokatu zuten, GSI Bilbao taldearen aurka. Hemen, 3 eta 6koarekin, garaipena etxeratzea lortu zuten horitxoek.

Zenbait aldaketa izan dira azken hilabeteetan, Tolosako taldearen baitan. Alde batetik, Alonso jokalaririk ohiak, jokatze-ari utzi eta entrenatzaile lanari ekin dio, Egizabalek utzitako aulkia betez. Bestalde, Gonzalez atezainak eta Altuna golea-tzaileak ere taldea utzi dute arrazoi ezberdinek bultzatuta. Ondorioz, baja garrantzitsu hauek eragin dezaketen ahule-

zia indartzeko asmotan, Zabala defentsa gaztea eta Arribilaga atezaina atxiki zaizkio tolosarreri.

Larunbateko norgehiagokaren hasieran, kontraerasoa izan zuten helburu Alonsoren mutilek. Dena den, lehen 20 minutuetan aukera garbi ugari izan zituzten. Markagailuak 2-1ekoa erakusten zuela joan ziren aldagaeletara bi taldeak. Laskorainekoek gola Yustosek sareratu zuten.

Bigarren zatian, tolosarrek ipinitako intentsitateak arerioaren lerroetan sekulako triskantza eragin zuten. Saldiasak, birritan, Telletxeak beste birritan eta Ekhi gazteak, markagailua biratu zuten 2-6koa ezarriaz. Hurrengo minutuetan bilbotarrek atezain-jokalariearen taktika jarri zuten martxan.

Ikastolakoek ordurako hiru puntuak ondo lortuak zituzten eta markagailuari eusteko ez zuten arazo handirik izan. Gainera, azken minutuetan aldea areagotzea ere lortu zuten. Ekhiaren hurrengo golak eta Amatriainen amaierakoak, 3-8ko azken emaitzarekin itxi zuten saioa.

Partida «borobila» egin zuten Laskoraineko jokalariek. Jokalari berriei dagokionean, Arribilaga atezainak sendotasunez gauzatu zituen bere lehen minutuak, Domentxerekin batera bikote ona osatuz. Bestetik, Zabala gazteak lan handia egin zuten. Aurre-denboraldian azaldu zuen maila fisiko onari jarraipena eman zion joan den larunbatean. Defentsan aparteko seriotasuna erakutsi eta gero.

KULTURA ▶



Voces 8-k San Frantzisko elizan eskainitako kontzertuko unea. A. O.

Atzerako kontaketa hasi da jada

39. Abesbatza Lehiaketa iragarritz, Voces 8 izan zen Tolosan, herenegun

ESTI EZEIZA

Tolosako 39. Abesbatza Lehiaketarako gero eta egun gutxiago falta direla iragarritz, Voces 8-ren kontzertua izan zen herenegun San Frantzisko elizan. Joan den urteko lehiaketako arrakastaren ondoren, hauek berriro entzuteko gozoz zeuden herritarrek hurbildu ziren arratsaldean elizara. Ekitaldian bertan aurkeztu zuten ere, aurtengo jaialdiaren kartel iragarlea izango dena. Epaimahaiaren erabakiaren ondoren, Ainhoa Sanchezen lanak irabazi zuten, eta berarena da diseinua.

39. Tolosako Abesbatza Lehiaketak, munduko abesbatza eskola desberdinetako batzuek biltzen ditu. Lehiaketako egitarauak Europako 15 herrialde, Ameriketako 5 eta Asiako 2 ordezkatzan dituzten 23 talderen partaidetza du. Tolosakoa bezalako Abesbatza Lehiaketek abesbatza mu-

sikaren garapenean garrantzi handia du, konpositore berriak, abesbatza literatura berria, proposamen estetiko desberdinak eta berritzaileak, teknika kantuak eta abar ezagutzera emateko modu eraginkorra baitira.

Sarrerek eta abonauak

Abesbatza Lehiaketako harpidetzak eskuratu ahal dira dagoeneko, eta hilaren 11ra arte izango dira salgai. Halaber, sarreren salmenta urriaren 18an jarriko da martxan. Bai, bata eta baita besteak ere, Kutxak sarrera banaketarako dituen hiru bideen bitartez erosi ahal izango dira. Hau da, Servikutxa, Teletukta edo Internet bitartez.

Aipatutako bideetan ez ezik, urriaren 18an eta 19an, Leidor antzokiko lehiatilan ere erosi ahal izango dira, 17:00etatik 19:00etara eta baita, lehiaketako saioetan ere.

iragarki laburrak ▶

SALGAI
Egurra. Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. Interesatuek deitu 615 75 57 62 telefono zenbakira.

LANA
Tabernaria. Amasako Iturri-goxo jatetxean tabernari bat behar dugu arratsaldeetarako. Interesatuek deitu 943 69 12 10ra.

ZIZURKIL ▶ KIROLAK



Iñaki Garmendia, Josu Kastañares eta Asier Mujika izan ziren hiru lehenengoak. JOXIN AZKUE

Josu Kastañaresek irabazi du berriro Zaldi Lasterketa

Iñaki Garmendia orendaindarrak eta Asier Mujika zizurkildarrak bukatu zuten bigarren eta hirugarren

IMANOL GARCIA

Josu Kastañaresek irabazi zuen berriro Zizurkilgo Zaldi Lasterketa. Seigarren urtea da lasterketa hori antolatzen dutena eta Kastañares elgoibartarrak hiru aldiz irabazi du herenegungo garaipenarekin. *Bizkor* zaldiarekin zaldi lasterketarako bikote ona osatzen dutela erakutsi du beste behin elgoibartarrak.

13 zaldunek hartu zuten parte, horietatik sei emakumezkoak. Finalerako sei zaldun sailkatu ziren. Kastañaresez gain, Iñaki Garmendia orendaindarrak, Asier Mujika zizurkildarra, Txomin Zubia zumaiarra, Iparaldeko Izortz Del Portal eta



Zaldi lasterketaren une bat. JOXIN AZKUE

Xanti Telleria lasartearra aritu ziren. Bigarren eta hirugarren Garmendia eta Mujika izan ziren. Hiru lehenengoek tartea atera zioten besteei.

Kastañaresentzat ez zen izan lasterketa erraza. Hasiara txarra izan zuen eta atzeko postuetan ekin zion finalari. Baina pixkanaka postuak aurreratzeko hasi zen eta lehenengo postuan bi buelta falta zirela jarri zen. Amaierara arte eutsi zion postu horri, Garmendiak estu hartu bazion ere.

Bi erorketa izan ziren. Horietako batean anbulantzian emakumezko zaldun bat eraman zuten. Azterketa egin zioten eta ezer larririk ez zuela jakin izan dute antolatzaileek.

Jende ugari joan zen udal-txe ondoko zelaira zaldi lasterketa ikustera. Eguraldia lagundu zuen eta mila lagun inguru izan zirela proba jarraitzen diote antolakuntzatik.

POLITIKA ▶

Gudari Egunaren baitan, ekitaldiak Zizurkil Goian



Andatza mendian egin zuten ekitaldietako bat. HITZA

ERREDAKZIOA

Gudari Egunarekin lotutako eskualde mailako ekitaldiak egin zituzten herenegun Zizurkil Goian. Andatza mendira ibilaldia egin zuten lehendabizi. Bertan hamaietako hartu zuten eta ondoren ekitaldia egin zuten. Txalapartarien sarreraren ondoren, «bizia eman duten eskualdeko 16 gudariei» omenaldia egin zitzaion. Agurra dantzatu ondo-

ren, lore eskaintza egin zitzaion. Bertsolarien saioa ondoren, idatzi bat irakurri eta *Eusko gudariak* abestu zuten bertaratuek.

Zizurkil Goira jaitsi ondoren, beste ekitaldi bat egin zuten Joxelu Geresta *Totto*-ren oroigarrian. 100 lagun inguru zeuden berta eta Geresta eta Joxe Arregi zizurkildarrei buruzko testu bat irakurri zuten. Ondoren bazkari bat egin zuten 50 lagun inguruk.

IRURA ▶ JAIK



Bikoteen dantza sokaren une bat. ANDER OTEZABAL

«Oso gustura» ere bigarren asteburuarekin

ERREDAKZIOA

«Oso gustura» azaldu da Marimi Ugalde Irurako alkatea, herriko jaien bigarren asteburuaren balantzea egiterakoan. «Ekitaldi guztiak asko gustatu zaizkio jendeari eta eguraldiak ere lagundu du», zehaztu du. Hala, lehenengo asteburuko balorazio «bezain positibo edo hobea» izan da.

Jaiak ofizialki amaitu badira ere, igande honetan Jubilatuta eta Pentecostun Eguna ospatuko dute. Eguerdian meza nagusia izango dute eta ondoren, Zaharren Biltokian bazkaria egingo dute. Bazkaldu eta gero jokuetako sarien banaketa izango da. Irabazleei dagokiena eman ondoren, dantzaldia antolatu dute Joxe Javier Mendizabalekin.

Bai Euskarari Ziurtagiria

kalitatea
elkarlana
lehiakortasuna
balio erantsia
erantzukizun soziala

ziurtagiriaren karta
www.baleuskarari.org 902 430026

laguntzaileak:
hitza

GIZARTEA ▶

600 metro telefono hari lapurtu dute

Abaltzisketan, Amezketan eta Bedaion telefono finkorik gabe daude oraindik

NEREA URBIZU

Telefono haria lapurtzen aritu ziren berriz ere, ostiraleko gauean, Amezketan inguruan. Honakoan, 600 metro lapurtu zituzten. Sei egunetan egindako bigarren lapurreta da ostiral gauekoa, eta ondorioz, hainbat etxetan telefonoaren seinalerik ez dago, ezta Internet ere, Amezketan, Abaltzisketan eta Bedaion, adibidez.

Etzeko telefonoa gero eta gutxiago erabiltzen den tresna bada ere, ez dagoenean gehiago somatzen da faltan. Ez da arazo bakarra hau izan, leku askotan Internet lanerako behar dute, eta ezin dute oraindik lana behar bezala egin. Kasu hau da, Abaltzisketako eta Amezketako Udalaren adibide edota Amezketako paper fabrika, eta beste hainbat bulego, besteen artean.

Herritarrak dira kaltetuak, eta gainera, oraindik ezin da jakin noiz arte egongo diren zerbitzurik gabe. Jon Etxeberriak esan bezala (Amezketako Udaleko administrari laguntzailea), «Telefonica enpresak oraindik ez du esan noizko konponduko duten: egunero

deitzen dugu, eta betikoa erantzuten dute, hau da, horretan gaude, materiala jasotzen ari gara... baina eperik ez dute ematen». Udaletzeko lanetan «telefonoaren hotsak ez du trabatzen, baina faxa ere ezin dugu erabili, ezta Internet ere. Orain egin beharreko lanak ezin ditugu egin, eta pilatu egingo zaizkigu».

Abaltzisketa eta Bedaio

Abaltzisketako Haritz Garmendiak adierazitakoaren arabera «ezin dugu telefonoz deitu, eta jadanik 13 egun dira. Herritar guztiak berdín gaude. Telefono zenbaki finkoetara deituta, nahiz eta ohiko hotsa atera, ez dago benetako seinalerik».

Bedaion ere berdín daude. Hala esan du Jon Azpiroztek: «Amezketako lapurretarekin batera Bedaion ere telefono seinalerik gabe gaude; pentsa, berez, ez dugu komunikazio oso onik lekuarengatik, eta gainera, mugikorrek ez dugu estaldura ona. Gutxiago kostatu zaie lapurtzea, konpontzea baino».

Kobrea da lapur hauek lortu nahi dutena, ondoren, oso pre-



Alegia eta Amezketan bitartean ostu zuten telefono haria. N. URBIZU



Telefonica enpresa lanean ari da matxura konpontzeko. N. URBIZU

zio onean metal-erosleei saltzeko. Metroaren prezioa 3 eta 4 euroren artekoa da.

Gabirian atxilotutakoa, aske

Beasaingo Ertzaintxeko agenteek gizon bat atxilotu zuten herenegun Gabirian hainbat

telefono-zutoinetatik kablea lapurtzeagatik. Atxilotuaren turismoaren barruan, ustez lapurreta egiteko hainbat erreminta aurkitu zituzten: hiru aizkora, zerrak, eta abar.

Ertzainek hainbat pertsona ikusi zituzten inguruetan, poliziaren presentziaz ohartzean

HAINBAT DATU ▶

Gaia. Lapurreta.

Lapurreta egunak. Irailaren 22an eta irailaren 28an.

Metro kopurua. 1.500 metro eta 600 metro ostiralean: guztira 2.100 metro.

Herria. Amezketan, Alegia eta Amezketan bitartean.

Eguna. Irailak 28, gauean. Orduan bigarren lapurreta izan zen herrian.

Materiala. Kobrea, telefonoaren haria.

Kalteak. Telefono finkoa, faxa eta internet zerbitzuak etenik.

Kaltetuak. Amezketarrak, abaltzisketarrak eta bedaiotarrak.

ihes egin zutenak. Hala ere, agenteek horietako bat harrapatzea eta atxilotzea lortu zuten. Gaintzekoak aurkitzeko inguruak miatu ondoren, atxilotuarena zen turismo bat aurkitu zuten.

Atxilotua, 45 urteko JC.V.V., polizia-etxera eraman zuten beharrezko polizia eginbideak egiteko eta, ondoren, aske utzi zuten, agintari judizialek deitzen dutenean agertzeko beharrek. Bere aldetik, Ertzaintzak ikertzen jarraitzen du, ustez tarteen sartutako gaintzekoak identifikatzeko.

Telefonica, konponketetan

Telefonica enpresako langileak lanean ari dira ia egunero Alegia eta Amezketan artean. Lapurretaren leku zehatza bilatu, aurkitu, beharrezko materiala bertara eraman, eta matxura konpondu, besteak beste. Hala ere, ez dute konponketaren datarik eman.

BIDEGOIAN ▶ KULTURA

Pello Zabala eguraldiaz ariko da arratsaldean

Gaur izango da Kultur Astearen baitan

N. URBIZU

Gaur, Bidegoiango Kultur Astearekin jarraituz, hitzaldia izango da Pello Zabalarekin. Bera-rekin eguraldiaz ariko dira eta balio anitzeko gelan elkartzeko dira interesatuak, 19:00etan.

Ostiralean, berriz, kirolari egin diote lekua herrian. Izan ere, Iñaki Alberdi auto gidaria bertan izango da, autoez eta lasterketetz hitz egiteko, besteak beste.

Larunbatean, berriz, Poxpolo eta Mokolo pailazoak izango dira 17:00etan, eta ondoren, txokolatada.

Igandeari dagokionez, Kultur Astearen lehen eguna, hain zuzen, espero bezala joan zen, jende asko hurbildu baitzen; «batez ere, sardina eta sagardo dastaketara» antolatzaileek esan bezala. Postu erakargarriak zeuden azokan, eta interesu piztu zuten ikusleengan. Gauza bitxiak izan ziren.

EGITARAUA ▶

URRIAK 2, GAUR

19:00. Hitzaldia: *Eguraldia*. Hizlaria: Pello Zabala, balioanitzeko gelan.

URRIAK 5, OSTIRALA

20:00. Hitzaldia Iñaki Alberdi auto gidariaren eskutik, balioanitzeko gelan.
21:30. Kontzeju jatetxean afaria. Izen-ematea jatetxean bihar baino lehen.

URRIAK 6, LARUNBATA

15:00. Marrakzi lehiaketa. Oinarriak egun berean banatuko dira.
17:30. Poxpolo eta Mokolo *Run-Run* saioarekin.

▶ Ondoren, txokolatada.



Sagardo dastaketan jende asko bildu zen Goiatzeri. ANDER OTEZABAL

BELAUNTZA ▶ NATURA

Zuhaitzetako onddoen inguruko erakusketa zabalik, Kultur Etxean

Hilaren 7ra arte egongo da zabalik 17:00etatik 20:00etara; azken egunean, berriz, 11:00etatik 14:00etara egongo da



Belauntzako Kultur Etxean zuhaitzetako onddoei buruzko erakusketa antolatu dute. ASIER IMAZ

ASIER IMAZ

Zuhaitzetako onddoei buruzko erakusketa antolatu dute Belauntzako Kultur Etxean, Aralar Parke Naturalean lan egiten duen Lizarrusti Parketxearen laguntzarekin. Atzo ireki eta hi-

laren 7ra bitarte, 43 zuhaitz fitxa ezberdin eta 173 onddo moeta ikusteko aukera egongo da bertan. Ordutegiari dagokionez, 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik erakusketa. Azken egunean berriz, igandean, 11:00etatik 14:00etara

egongo dira onddoak ikusgai. Fitxetan, argazkia eta onddoa zein zuhaitzaren lagin bat aurkitzeaz gain, familia, generoa, espeziea, bizilekua edo esparraren inguruko informazioa aurkituko ditu gerturatzen denak.

Joxe Manuel Lekuona Aran-zadi Zientzia Elkarteko mikologoa eta mikologia saileko zuzendariak osatu du erakusketa, eta lan honen bidez, «herritarroi, adituei nahiz zaleei, zuhaitzetan aurki ditzakegun onddo desberdinak identifikatu eta ezagutzeko parada eskainiko digu». Lizarrusti Parketxeako kideak azaldu dutenez, «hilabetero saiatzen gara gai bati buruz herri desberdinetan zerbait egiten. Kasu honetan Belauntzan erakusketa antolatu dugu, baina horretaz gain hitzaldiak eta antzeko ekitaldiak ere antolatzen ditugu. Modu honetan, gure eskuetara etortzen diren gauzak, Lizarrustitik kanpora ateratzen saiatzen gara».

Aralar parkeko atea

Lizarrusti Parketxea duela 9 urte ireki zuten Aralar Parke Naturaleko harrera etxe eta dinamizazio gune izan zedin. Azken bi urte hauetan, Lizarrusti Parketxearen dinamika handitzen joan da, ikuspegi edo lan ildo berriei heldu zaielako. Honela, azken bi urte hauetan hileroko ibilaldi tematikoak antolatu dira Aralar Parke Naturalean inguruko gaiak eta txokoak aztertzei asmoz. Era berean, ikastetxeentzat heziketa-jarduerak prestatu eta eskaini dituzte. Aurten Lizarrusti Parketxea bera egokitzapen lan batzuegatik itxita aurkitzen da, hain zuzen ere, bertan eskainiko dituzten zerbitzuak hobetzeko asmoz.

ZILARREZKO JAURTIKETA ▶
JON ALTUNA

Etxean baino hobe inon ez!

Hurrengo astea hobe izango ote da! Halaxe amaitu nuen aurreko asteko idatzia. Kirol aldetik hobe izan ez den arren, oraindun ere galdu egin dugu, behintzat oraingoan ez dugu ez bidaia arazorik edo bestelakorik izan. Izan ere, aste honetan gure zelaian jokatzeko gure eta asteburuko bizimoduak erabat aldatzen da kanpoan edo etxean jokatu. Kanpora goazen bakoitzean asteburua antolatua izaten dugu, etxean jokatzeko berriz larunbat goizean entrenamendua egin ondoren igandeko partidura arte libre izaten dugu. Hotel barruan orduak noiz pasako zain egon beharrean, lagunekin asteburua pasa eta beraiekin planak egiteko aukera izaten dugu.

Aste honetan aurkari bezala Sevilla Atletico genuen. Adituek diotenez, momentu honetan espainiar futboleko harrobi indartsuena. Honela, partidua zaila espero genuen eta halaxe izan zen. Guk ez genuen gure egun onena izan, hala ere agian punturen bat merezi genuen, baina une honetan zorrea alde ez dugunez partiduko luzapenean galtzea suertatu zen. Zorrea aldatuko dela pentsatu behar eta ea hurrengo asteburuan Cadizetik emaitza onen bat ekartzen dugun. Ibarrik joan zen jendea eskerak emateaz ezin ahaztu, batez ere, bazkide egin direnei: Txantxan, Txuntxun, Trunbo, Lali, Zuhaitz eta Montxito. Meritu handia duzue mutilak!

Partidua galdu ostean triste antzera geratzen gara, baina etxean jokatzeko lagunekin gera zaitzake afaltzeko eta ondoren zerbait hartuz tertulian txikian aritu, ondo etortzen da apur bat deskonektatzeko. Kanpoan jokatzeko dugunean partidutik aparte ez da beste gairik izaten eta azkeneko nazkatuta amaitzen duzu. Horregatik gustatzen zaigu hainbeste etxean jokatzeko, lagun eta familia giroan bat gustorago egoten delako.

Amaitzeko, ezin aipatu gabe utzi, dudarik gabe asteburu honetako berri onena. Ibarrik bat berriro ere gure artean dugu, bost urte etxetik urrutiko espetxean pasa ondoren.

Ongi etorri Mindle!

LIZARTZA ▶ POLITIKA

Regina Otaolak (PP) «ETAk orain dela 29 urte erail zuen» Ramiro Quintero omendu nahi du herrian

A. IMAZ

Regina Otaolak (PP) prentsaurrekoa eskaini zuen atzo Lizartzako udaletxean, Manuel Mitxelena eta Laura Garrido al-

derdikide eta udaleko zinegotzietan batera. 27 botoz aukeratutako Lizartzako alkatea, herritarrengana zuzendu zen, «ulertu behar duzue, Espainiako bandera udaletxean zintzilik egotea ez dela inposaturiko sinbolo bat jartzea, legea betetzea baizik», azaldu zuten. Horretaz gain, herritarrei emango dien bandoa aurkeztu zuen. Bertan, Lizartzako alkate bezala «herritarren alde ilusio eta gogo handiz lan egiteko asmoz» mintzatu da. Herritarrek, Regina Otaola eibartarraren esanetan, «denbora askoan ETA eta bere ordezkari politikoei sortu duten izua jasan behar izan dute». Bandoan «lizartzarren eskura» jarri dituen bi telefono zenbaki aurki-



Herritarrek larunbatean burutu zuten manifestazioa. ESTI EZEIZA

tzen dira, «kexu, eskaera, kezka, ideia» eta abarren berri emateko.

Bestalde, Otaolak Ramiro Quintero Avila omendu nahi duela Lizartzan hurrengo urte-

an adierazi zuen. «ETAk Lizartzan bizi zenean hil zuen basozaina». Regina Otaolak esan zuenez, gaur betetzen dira «29 urte ETAk Ramiro Quintero Avila erail zuenetik».

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Zeuk idatzi. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO webgunean zure inguruan gertatzen diren albiste berri emateko aukera duzu. Informazio interesgarriren bat baldin baduzu, atal honetan idatzi eta honen berri emango da gure egunkarian.

LEITZA ▶ LEITZAKO ESKUZ BINAKAKO III. TXAPELKETA

Eskualdeko pilotariak hiru kategoriatan irabazi dute

Benjaminetan Eskudero eta Arandiak irabazi zuten (18-16), hasiberrietan Saralegi eta Tolosak (18-15) eta kadeteetan Jon Jaunarenak eta Lanak (22-15)



Kadeteetan Jaunarenak eta Lanak Apezetxea eta Bolinagaren aurka irabazi egin zuten. A. OTEZABAL



Partidak amaitu ondoren sari banaketa egin zuten: osotara, 12 garaikur banatu zituzten. HITZA

NAIARA GARZIA

Igandean Leitzako Amazabal Pilotalekuan jokatuak 6 finaletan Aurrera Pilota Eskolako 3 pilotarik, Ander Eskudero, Jon Jaunarenak eta Iñaki Saralegi, azken honek Tolosa ano-

etarraren laguntzarekin, finala irabazi zuten beraien mailan, hau da, benjamin, kadete eta hasiberrietan. Xabier Jaunarena leitzarrak Arratibel tolosarrarekin jokatu zuten, baina ez zuten garaipenik lortu.

Pakito Sagastibeltza Aurrera

Pilota Eskolako arduradunak finala «oso ongi» joan zela adierazi du. «Frontoia ez zen erabat bete, baina jende asko bildu zen». Finala 09:00etan hasi zen, eta 14:30ean amaitu. Tarte horretan 6 finalak jokatzear gain, sari banaketa egin

zuten. Gainera, pilota eskolak antolatuta, hamaiketako ere eman zuten. «Jendeak asetu arte jan zuten», dio Sagastibeltzak.

Festa giroan jokatuak 6 partida hauetatik baten bat azpimarratzekotan, Pakito Sagastibeltzak benjaminen eta hasiberrien arteko finalak aipatu ditu. «Partidak ia denak dotoreak atera ziren, baina denek txikienek erraz bukatuko zutela pentsatzen genuen, eta azkenean hauen norgehiagokak luzatu egin ziren. Partida politak eta gogorak jokatu zituzten».

Benjaminetan Eskudero leitzarrak ez zuten Bakaikoarekin jokatzetik izan, antolatzaileek gaixo zegoela azaldu dute, eta Arandiarekin jokatu zuten, baina aldaketa hau egin arren, 2 tantorengatik irabazi zieten Peña eta Mendiari (18-16). Hasiberrietan Iñaki Saralegi Leitzako pilota eskola ordezkatu zuten, eta Tolosa anoetarrarekin batera finala irabazi zuten, Dario eta Mitxelenaren aurka, 3 tantorengatik (18-15). Haurkategorian Xabier Jaunarena leitzarrak eta Arratibel tolosarrak ez zuten zortetik izan eta Sanjurjo eta Jakaren aurka galdu zuten (18-12). Jon Jaunarena eta Lana txapeldun gelditu ziren kadeteetan Apezetxea eta Bolinagaren aurka 22 eta 15 irabazi ondoren. Gazteetan Idoate eta Nublak eskuratu zuten txapela, Narbarte eta Galartzari 11 tanto atera ondoren (22-11), eta nagusietan Yoldi eta Bessonartek irabazi zuten (22-17) eta Bengoetxea eta Etxeberria txapeldunorde gelditu ziren. Azkeneko bikote honi dagokionez, Bengoetxeak Erroizenearekin jokatu behar

FINALA ▶

EMAITZAK

Benjaminak. Eskudero eta Arandia 18, Peña eta Mendia 16.

Hasiberriak. Saralegi eta Tolosa 18, Dario eta Mitxelena 15.

Haur-kategoria. Jaka eta Sanjurjo 18, Jaunarena eta Arratibel 12.

Kadeteak. Jaunarena eta Lana 22, Apezetxea eta Bolinaga 15.

Gazteak. Idoate eta Nubla 22, Narbarte eta Galartza 11.

Nagusiak. Yoldi eta Bessonart 22, Bengoetxea eta Etxeberria 17.

zuen arren, azken momentuan aldaketa egin behar izan zuten.

Sari banaketan 12 txapela banatu zituzten, eta aurreikusita zegoen bezala, kirol munduko ordezkariak dagokionez, Oinatz Bengoetxea, Mikel Olazabal, Ruben Astibia eta Iñaki Gazteluk banatu zituzten sariak. Leitzako alkatea Xabier Zabalo ere bertan izan zen, baita Karlos Agirre Aurrerako lehendakaria, Goikoa enpresako ordezkaria eta Punpa pilota enpresako arduraduna ere. Abel Barriola pilotariak eta Iñaki Elorza kazetariak ez zuten joaterik izan.

Denboraldiaren amaiera

Leitzako Eskuz Binakako III. Txapelketarekin batera denboraldia amaitu dela adierazi du Sagastibeltzak. «Leitzako Txapelketa denboraldiaren bukaera bezala da guretzako. Aurtengo balantzea oso ona da: Nafarroako Herri Artekoa irabazi dugu, baita Euskal Herrikoa ere, eta txapelketa askotan parte hartu dugu. Zaila izanen da hau berdintzea».

Gainera, pilotari txiki berriak ere hasi dira eskolan, 7 inguru. «Astearte eta ostegunetan frontoira joateak poza ematen du», dio Sagastibeltzak. Lizarrako txapelketa eta Burlatakoa dira pilota eskolaren hurrengo erronkak.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Tel.: 943 65 56 95

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Alkiza. Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak Alkizako jubilatuentzat irteera antolatu du urriaren 17rako Treviño, Frias eta Miranda de Ebrora. Izen-ematea, Aiztondoko bulegoetan (943 693930) 18 eurotan.
Bidegoian. Pello Zabala eguraldiaz ariko da. Hitzaldia Kultur Astearen baitakoa izango da, balioanitzeko gelan.
Tolosa. La Jarak bidaia antolatu du Extremadurara azaroaren 1etik 4era. Izen-ematea, 230 eurotan, elkartearen edo 675707619.
Tolosa. Caritas-ek mantak eta lozakuak behar ditu. Bere egoitzara (parroki etxearen ondoan) eraman daitezke edo 943 670571 zenbakira dei daiteke.
Tolosa. San Esteban auzoko herri krosa urriaren 12an izango da. Izen-ematea, Shanti Kirolak-en.
Villabona. Biltoki jubilatuek elkarrekin irteera antolatu du urriaren 18an Arantzazura. Izen-ematea, elkartearen 23 eurotan.

ERAKUSKETAK

Alegia. Juani Alkortaren margolanak ikusgai daude jubilatuen tabernan.
Belauntza. Igandera arte, 17:00etatik 20:00etara zuhaitzetako Onddoei buruzko argazki erakusketa ikusgai Kultur Etxean. Joxe Manuel Lekuona Aranzadi Zientzia Elkarte mikologoak osatu du; aditu nahiz zaleei zuzendua dago.
Tolosa. Aitor Tejeriaren margolanak ikus daitezke Sorron marko dendan.
Tolosa. Jesus Elosegik ateratako argazkiak daude ikusgai Aranburu Jauregian.
Tolosa. Gotzon Etxeberriaren *Olibondoak badu bihotzik* eta Josep M. Codinaren *Orografia personal* pintura eta eskultura erakusketak daude ikusgai Aranburu Jauregian.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.
Areso. Goizueta, F. Loidi Etxea. 112.
 ▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Ardi zaharra, laukien ama

BEDAIO ▶ lorreta baserrian ostiralean jaio ziren laukiak, eta bizirik egoteaz gain, bizkorrak ere dira; ardiak ere oso ondo dagoela bistan utzi du



Ardiak ez du esne nahikoa lau arkumeentzat, baina denak oso indartsu daude. N. URBIZU



Bi ar eta bi eme dira kumeak, eta tamaina txikiak dira, ama bera bezala. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Ardi zaharra, baina indartsua: Bedaioko Iorreta baserrian ostiral gauean bertako sei urteko ardi batek lau kume izan zituen, eta laukiak bizi-biziki daude. Pinttoa da jaiotako lehenengoa, eta baita eskarmentatuena ere.
 Karlos Beloki, Iorreta baserriko jabeak esan zuenez, «ardi batek lau kume izatea, eta laurak bizirik egotea ez da batere normala. Gertatu izan zaigu, baina baten bat eri edo hilik zeuden». Dena dela, ardiak ez du lauentzat nahikoa esne, eta horregatik, hor aritzen dira etxeko guztiak, biberoiak prestatzen eta arkumetxoek jaten ematen. «Beste ardi bat jeitzen dugu, eta esne hau bi kumek edaten dute».
 Beste batean ere bost kume izan zituen ardi batek, han bertan, baina kasu horretan denak hil egin ziren. Ez da lau kume izaten dituen lehen ardia Bedaion, baina bai bostak ondo eta osasuntsu daudena.
 Txikiak dira arkumeak, baina ama bera ere: «Ez da oso handia, eta ez dauka denentzako esnea». Ziurrenik, bi aterako litzuzke aurrera, agian hiru ere. Bi beste ardi bati emango dizkio, laukiak ondo hazi daitezke.
 «Ardiak lana izaten du lauki biltzen, kumeek hasieran ez baitute ama guztiz ezagutzen, baina bai amak. Baina, arkume batek amarekin gaua egiten ez badu, amak gaitzetsi egiten du. Batzuetan bi gau ere onartzen dituzte amek». Kasu horretan, arkumeak beste ama bat behar harko luke.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Laura Gorostiaga Otegi (Tolosa). Gaur 6 urte. Muxu handi bat familiaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitzan Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...